



Plazaolako Partzuergo Turistikoa.  
Plazaola, 21. 31870 Lekunberri  
T. 948 507 205-204 / f. 948 507 333  
plazaola@plazaola.org

[www.plazaola.org](http://www.plazaola.org)

## KOLABORATZAILEAK




CONSORCIO TURÍSTICO  
**PLAZAOLA**  
PARTZUERGO TURISTIKOA



# BIZIKLETA EGOKITUAK

Bizikletak alokatzeko doako zerbitzua



Plazaolako Partzuergo Turistikotik mugikortasun mugatua duten pertsonentzako txirrin-dula bereziak alokatzeko doako zerbitzua eskaintzen dizuegu. Bizikleta hauek Sanitas Taldeak, Tambien Fundazioak eta Ferrocarriles Españoles Fundazioaren eskutik iritsi zaizkigu, “Haciendo Huella” kanpainaren bitartez.

Izan ere, elkarte hauek argi daukate Natur Bideak naturaz disfrutatzeke eta horrekin konexioa lortzeko ibilbide paregabeak direla edonorentzat.... eta batez ere, mugikortasun mugatua duten pertsonentzat. Bide horiek izan ohi dituzten helburu nagusien artean sartzen- erraza izatea aurkitzen da. Gainera, jakin badakigunez, bide hauek antzinako trenbide saretik igarotzen dira eta horren ondorioz, hauek izan ohi dituzten aldapak minimoak dira, mugimendu mugatuko pertsonen erabilerarako oso erabilerrazak bihurtuz.



“Haciendo Huella” kanpainaren bidez Plazaolako Natur Bidera bidalitako txirrin-dula modeloak, Micah eta Hand- bike dira. Lehenengo, Micah, erabilera errazekoa da eta beste lagun batek gidatzeko aukera ematen du; hankak mugitu bai, baino oreka mantentzeko zailtasunak dituzten pertsonak erabiltzeko pentsatuak dira (burmuineko paralisia, espina bifidoa....) eta horretarako enborrerako uhalak erabiltzen ditu. Bestetik, Hand-Bikea -modelo honetako bi eredu desberdin iritsi dira- eskuekin mugitzen diren pedal batzuekin gidatzen da, era horretan enborraren goikaldea garatuz.



Nafarroako gaigabetu fisikoen elkarte kordinatzailea (ACODIFNA) Plazaolako Partzuergora gerturatu zen bizikleta berriak eta horien erabilerarako egokituta dauden bide-tarteak aztertzeraz. Izan ere, hori da elkarte honen xede garrantzitsuenetarikoa bat, hots, mugikortasun mugatuko pertsonentzat zerbitzuak eta aukeren berdintasuna bermatzea eta ingurunea, ondasunak, zerbitzuak eta instalazioak egokiak direla baieztatzea.

**Beraz, Plazaolako Natur Bidean, aukera paregabea ematen da mugimendu mugatu arin, ertain eta larriko pertsonak, Irurtzun eta Biaizpetik, Leitzara eta Gipuzkoako mugara iristen den ibilbidearen aberatasun paisajistiko eta kulturalarekin disfrutatu eta gozatzeko.**

Informazio gehiago Lekunberriko turismo bulegoan, 948 507 204 telefonoan eta [www.plazaola.org](http://www.plazaola.org) web orrialdean

# COMENDATUTAKO TARTEAK

## LEITZAKO GELTOKIA — PROBINTZIAKO MUGA— LEITZAKO GELTOKIA: 10 km

Leitzako geltokitik aterata 5km ibiltze-ko aukera dago Gipuzkoako mugaraino 4 tunel pasata.



## LEITZAKO GELTOKIA — UITZIKO TUNELA — LEITZAKO GELTOKIA: 14km

Leitzako geltokitik hegoalderuntz abiatuta, Uitziko tunelera iritsiko gara, hamar tunel igarota 7 km-tan.



## ETXARRIKO BORDAK— UITZIKO TUNELA— ETXARRIKO BORDAK: 8km

“Etxarriko Bordak” zonaldeetik Uitziko tunelera iritsi arte (tunelean sartu gabe) Plazaolako Natur Bideaz gozatzeko 4km daude.



## LEKUNBERRIKO GELTOKIA — LEKUNBERRIKO TUNELA — LEKUNBERRIKO GELTOKIA: 2km

Lekunberriko geltokitik abiatuta eta Lekunberriko tunelera iritsi bitarte km 1-eko ibilbidea daukagu .

